

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

TOKIKO GOBERNU BATZARRARI LAGUNTZEKO ORGANOA

Tokiko Gobernu Batzarraren 2022ko uztailaren 22ko erabakia, oporraldian zereginak eskuordetzeari buruzkoa

2019ko ekainaren 21eko eta 26ko eta uztailaren 11ko, 2020ko otsailaren 24ko, uztailaren 2ko eta urriaren 2ko eta 5eko, 2021eko maiatzaren 28ko eta 2022ko uztailaren 15eko erabakien bitartez, bere eskumen zenbait kide anitzeko organo horretako kide diren zinegotziei eskuordetzea erabaki zuen Tokiko Gobernu Batzarrak, Toki Jaurbidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 127. artikuluan ezarritakoaren ildotik.

Ikusirik oporraldian uste izatekoa dela Tokiko Gobernu Batzarreko zenbait kide absente izango direla, alkate lehendakariak, udal-administrazioaren funtzionamenduak behar bezala jarraituko duela bermatze aldera, erabaki proposamen hau egiten dio Tokiko Gobernu Batzarrari.

Erabaki-proposamena

Oporraldian, eskuordetu zitzaizkielako lege Tokiko Gobernu Batzarrari dagozkion zereginak egiten dituzten kide anitzeko organo horretako kideak absente badira, zeregin horiek alkateari edo oporraldian alkateorde ari denari eskuordetzea.

Azken xedapena. Datoren egunean jarriko da indarrean dekretu hau, ALHAOn zein egunetan argitaratzen den gorabehera.

Vitoria-Gasteizen, 2022ko uztailaren 21ean

Alkatea

GORKA URTARAN AGIRRE